



## IRUÑA QUIZ JOKOA

---

### Lehena. - LEHIAKETAREN XEDEA

“Quiz” motako galde-erantzunen lehiaketa “Trivial” markako joko ezagunaren antzekoa da; kasu honetan, lehiakideek lau galdera-kategoria dituzte. Osotara Done Jakue bidearekin lotutako 44 galdera dira. Galdera horiek xede dute hiriko biztanleek modu didaktiko eta dibertigarrian hiriari eta turismoari buruzko bitxikeriak ikastea, Pamplona-Iruña app-a eta hiriko turismo-webgunea erabiliz. Jokoa adin guztietako pertsonendako da, eta bereziki pentsatuta dago familia edo lagunartean jokatzeko.

### Bigarrena. - Diru-zuzkidura

Joko honek ez du diru-zuzkidurarik, hala ere, 15 sari prestatu dira, Iruñeko Udaleko Protokolo Zerbitzuak bisitei arreta emateko eskura dituen opariak eta Iruñeko Hotelen Elkarteak eskainitako hotel-gauak:

Iruñeko Udaleko Protokolo Zerbitzuaren 10 opari-poltsa:

- Hiriaren armarrria inprimatuta duen oihalezko bizkar-zorro berde bat.
- Sanferminetako zapi brodatu bat
- 8x8cm-ko ohar-blok bat
- Euritako tolesgarri berde bat
- Hiriaren armarrria inprimatuta duen giltzatak bat

Iruñeko Hotelen Elkarteak lagatako 5 opari:

- 2 pertsonendako gau bat (ostatua eta gosaria barne) eta afaria Iruña Park Hotelean
- Gastro Relax esperientzia bat (2 pertsonendako gau bateko ostatua, gosaria eta spa) El Toro Hotelean
- Gau bat gosariarekin (2 pertsonendako) Tres Reyes Hotelean
- Gau bateko ostatua gosariarekin (2 pertsonendako) Gorraiz Hotelean
- 2 pertsonendako gau bat gosariarekin (eskuragarritasunaren arabera) Maissonave Hotelean



Hirugarrena. – Joko-modalitateak

Jokoan bi modalitatetan parte hartu ahal izanen da:

a) Pamplona-Iruña turismo-aplikazioa:

Pamplona-Iruña aplikazioaren bidez jokatzeko honako urrats hauek jarraitu behar dira:

- Deskargatu 'Pamplona-Iruña' aplikazioa Apple Storen edo Play Storen, eta kokapena (GPS) eta Bluetooth-a aktibatu mugikorrean. Galderak kolore beltzeko eta binilo berdedun totem motako turismo-baliza edo -seinaleetan aurkitzen ahal dira, Donejakue Bidean kokaturik.
- Egunero jokalariek 4 abisu desberdin jasoko dituzte, galderekin eta galdera horiei erantzun ahal izateko balizara joateko jarraibideekin.
- Balizaren parean daudenean, QR Kodea eskaneatu beharko dute.
- Jokalariak jokoan parte hartu nahi duen lehen aldian, izena emateko aukera agertuko da. Jokalariak oraindik erregistratu gabe dagoen izen edo izenorde bat idatzi beharko du, eta hori izanen da jokalariaren identifikazioa joko osoan zehar. Sailkapenean agertuko den izena izanen da.
- QR-a eskaneatutakoan jakinarazpenen artean galdera bilatu beharko da, ireki eta honako hau sakatu: Jolastera! Galdera erantzuteko 3 aukera agertuko dira. Bakarrik bat izan daiteke zuzena.
- Gauza bera egin beharko da egun bakoitzeko 4 galderekin, lehiaketak irauten duen 11 egunetan.
- Parte hartzaileen sailkapena: Lehengo galderaz geroztik jokalaria parte hartzaileen sailkapenean agertuko da, eta bertan ikusi ahal izanen du zein postutan dagoen. Sailkapena etengabe eguneratuko da. Erregistroa egiteko erabilitako izena ilunduta agertuko da.
- Erabiltzaile-izena izanen da lehiaketan identifikatzeko modua. Behin zozketa eginda, jokalariak aplikazioaren jakinarazpen bat jasoko du erabiltzaile irabazlearen izenarekin.
- Egunero balizetan 4 galdera berri argitaratuko dira.

b) Webgunearen bidez

- Turismoko webgunearen bidez [www.pamplona.es/turismo](http://www.pamplona.es/turismo), [www.pamplona.es/turismo/quiz/](http://www.pamplona.es/turismo/quiz/) webgunean dagoen formularioa bete behar da.



- Egunero argitaratuko da egun bakoitzari dagokion txartela.
- Webgune honek formulario bat dauka, non jokalaria bakoitzak bere datu pertsonalak eta galderen erantzunak sartzen ahalko baititu. Formularioa zuzenean erantzunen erregistro batera iritsiko da. Turismo bulegoak egunero egiaztatuko du pertsonak parte hartzeko baldintzak betetzen dituela eta txartelean, gutxienez, hiru galdera zuzen erantzunda daudela. Baldintzak betetzen dituzten txartelak turismo bulegoan horretarako atondutako postontzi batean botako dira.

Bi kasuetan, jokoak galderak egunero, egun solteetan edo denak batera erantzutea ahalbidetzen du.

Laugarrena. – Jokoan parte hartzeko baldintzak

- a) Jokoan parte har dezakete ezarritako edozein modalitatearen bidez jokora sartzen diren 18 urtetik gorako pertsona guztiek. Egunean txartel bat baino ez da onartuko jokalaria bakoitzeko.
- b) Webguneko formularioaren bidez parte hartzeko, honako datu hauek bete behar dituzte: izen-abizenak, harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa. Aplikazioan parte hartzeko izen edo izenorde batekin izena eman behar da.
- c) Ez da beharrezkoa egunero erantzutea, baina zenbat eta egun gehiagotan erantzun, orduan eta aukera gehiago egonen dira sarietako bat lortzeko.
- d) Parte hartzaile bikoiztutzat hartuko dira honako hauek:
  - Parte hartzaileen izen-abizenak bikoiztuta dituzten txartelak.
  - Nahiz eta pertsona ezberdinenak izan, honako datu hauek bikoiztuta dituzten txartelak: abizenetako bat eta harremanetarako telefonoa, edo abizenetako bat eta helbide elektronikoa.

Bosgarrena. – Lehiaketaren datak

Apirilaren 1etik11ra bitarte. Galderak apirilaren 18ra arte aurkezten ahalko dira.

Seigarrena. – Sarien banaketa

- a) Honako sari hauek ezarri dira, joko-modalitatearen arabera:



Pamplona-Iruña aplikazioa: 7 sari ditu:

- 1. oparia: 2 pertsonendako gau bat (ostatua eta gosaria barne) eta afaria Iruña Park Hotelean
- 2. oparia: Gastro Relax esperientzia bat (2 pertsonendako gau bateko ostatua, gosaria eta spa) El Toro Hotelean
- 3. oparitik 7. oparira arte: opari-poltsak.

Webgunearen bidezko modalitatea: 8 sari ditu:

- 1. oparia: Gau bat gosariarekin (2 pertsonendako) Tres Reyes Hotelean
- 2. oparia: Gau bateko ostatua gosariarekin (2 pertsonendako) Gorraiz Hotelean
- 3. oparia: 2 pertsonendako gau bat gosariarekin (eskuragarritasunaren arabera) Maissonave Hotelean
- 4. oparitik 8. oparira arte: opari-poltsak.

b) Lehiaketa amaitzean, sariak banatzeko honako prozedura hau erabiliko da:

Pamplona-Iruña aplikazioaren bidezko parte hartzaileentzat

- Sariak lortutako puntuazio-hurrenkeraren arabera emanen dira. Puntuaziorik altuena lortu duen parte hartzaileari 1. saria emanen zaio, eta horrela hurrenez hurren, ezarritako 7 sariak eman arte.
- Puntuazioan berdinketarik izanez gero, zozketa-bidez erabakiko da. Horretarako, parte hartzailearen edo erabiltzailearen izena txartel batean idatziko da, eta horretarako prestatutako kutxa batean tolestuta botako da. Ateratako lehen txartelari dagokion saria emanen zaio, 1etik 7rako banaketa-ordenari jarraituz. Ekintza hau berdinketa hausteko behar-beste alditan errepikatuko da, edo sarien banaketa amaitu arte.

Webgunearen bidezko parte hartzaileentzat:

- 4 galderetatik gutxienez 3 zuzen erantzunda dituzten txartelen artean zozketa egingen da. Zozketan parte hartzen duten txartel guztiak kutxa bakar batean botako dira, eta gero hortik txartelak aterako dira.
- 8 sarietako bakoitzari zenbaki bana esleituko zaio, eta gero banaka aterako dira kutxan botatutako txartelak. Ateratako lehen txartelari 1. saria emanen zaio eta horrela hurrenez hurren, sari guztiak eman arte.



c) Zozketa egiteaz arduratuko den mahaia honako hauek osatuko dute:

- Lehendakaria, Carmen Alba, Turismoko zinegotzi berezia, edo alkateak horretarako eskuordetzen duen zinegotzia.
- Idazkaria, Itziar San Martin, Zuzenbidean lizentziaduna, edo Zuzenbidean lizentziaduna den pertsona bat.
- Ordezkoa: María Bezunartea, Turismo Zerbitzuko burua, edo turismoko beste teknikari bat.

d) Beste hainbat alderdi:

- Modalitatearen batean horretarako ezarritako sari guztiak banatzen ez badira parte hartzaile nahikorik ez egoteagatik, sari horiek beste modalitatearen zerrendari gehituko zaizkio. Horretarako, mahaia berriz esleituko dio sari bakoitzari zenbaki bana, zenbaki korrelatiboak jarraituz.
- Zozketaren eguna Udalaren webgunean eta prentsa-ohar bidez argitaratuko da.
- Zozketa egiteko, jokoan parte hartu duten 5 pertsona deituko dira zozketa egiten den unean gutxienez bi pertsona egotea ziurtatzeko.

Zortzigarrena. – Sariak ematea

Epaimahaiak organo eskudunari, hau da, Gobernu Estrategiko, Merkataritza eta Turismoko zinegotzi ordezkariari sariak emateko proposamena aurkeztuko dio, horren gainean ebatz dezan.

Bederatzigarrena. – Sarien jakinarazpena

Sarien irabazleei posta elektronikoko bidez jakinaraziko zaie, salbu eta Pamplona-Iruña turismo-aplikazioaren erabiltzaileei, haiei aplikazioaren bidez jakinarazpen bat bidaliko baitzaie. Ohar hori erabiltzaile guztiei helduko zaie, irabazlearen izenarekin, Turismo Bulegoan bere mugikorrarekin agertu dadin eta irabazlea dela frogatzen da.

15 egun naturaleko epean sarien irabazleak agertu ez badira, geratzen diren sarietara beste zozketa bat egingen da. Kutxa turismo bulegoan gordeta egonen da.

Hamargarrena. – Datu pertsonalen tratamendua



Iruñeko Udala da arduradun botere publikoetz baliatuz dirulaguntza kudeatzeko eta saria emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Ez da daturik lagako legeak hala aginduta izan ezik. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorra (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria [www.pamplona.es](http://www.pamplona.es) webgunean kontsultatu ditzakezu.

Sari-banaketaren irudiak Udalaren webgune korporatiboan eta sare sozialetan argitaratu daitezke, eta hedabide ezberdinetan zabaldu daitezke.

Hamaikagarrena. – Errekurtoak

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar haien lanekin parte hartzen dutenek oinarriak onartu eta horiei men egitea.

Lehiaketa honen garapenaren eta oinarri hauen interpretazioaren inguruko gatazkak oro organo emaileak ebatziko ditu.

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurto hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtoa, administrazio-egintzaren egile den udal-organismoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.